AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1326

AGINDUA, 2013ko otsailaren 27koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia ebazten duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.c artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, eta, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia egiteko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak 2013ko urtarrilaren 31n eman zuen Aginduaren hirugarren oinarrian ezarritakoaren arabera (2013ko otsailaren 8ko EHAA, 28 zk.), honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ana Isabel Ferri Basualdo andrea Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailaren Bizkaiko lurralde-ordezkari izendatzea (512076 kodea, 4 dotazioa, A kidegoa, 29 destino-osagarriaren maila, 0-A berariazko osagarria).

Bigarrena.– Izendapen honek 2013ko otsailaren 27tik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak eta administratiboak.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke agindua eman duen organoari hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 27a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.